

GEU
ELKARTEAREN
BABESAREKIN

62
ZENBAKIA
98KO OTSAILA

gasteiz

gasteizko euskaldunon aldizkaria



Saharako lagun

KUTIXIK

TXOTX

Egunotan sagardotegi garaia zabaldu da. "Txotx" esan eta, denak ilerara zuzen-zuzen nagusiak gorderik daukan sagardorik goxoena dastatzera.

Lehenengo hamar basokadak, ba... bai!, bereizten dituzte, baina handik aurrera, denak berdinak dira beraien ahosabairako, baina, adituak direla nonbait azaldu egin behar eta... "hau hobea zegoa, aurrekoa goxo samarra zegoan...". Baina hurrengo egunean hasierako basokadan, bezperan azkenengoak izan zirenak izanez gero, ziur ez luketela gauza bera pentsatuko.

Zazpi eta erdietarako sagardotegira iritsi, basoa hartu eta trago pare bat, ondoren makailu tortila eta makailu frijitua, eta nola ez, txuleta eder bat, hori ezin baitzen falta sagardotegian. Bukatzeko gazta irasagarrarekin eta intxaurreak. Baina hori guztia bultzatzeko zurrutadak eta zurrutadak, eta gero eta balantza handiagoak.

Basokadak ugarituz doazen heinean, hitz jarioa ere ugariagoa da eta, une horretan, denak zein baino zein bertsolari hobeak, eta etsairik handiena ere laguna.

Tripa zakua ere hustu beharra izaten da.

Komunerako bidea hartu, eta gainean duten balantzari eutsi ezinik direnez, komuneko zulora baino gehiago komun ingurura; putzu galanta komun inguruan. Denek ez dute, ordea, bide hau hartzen. Kanpoko haizea hartzea ondo etortzen zaionik ere bada. Hauek, esku bat hormaren kontra dutelarik, bestearekin zintzilikarioari heldu eta horman marrazki desberdinak egiten saiatzen dira, hotzaren kontrastearekin sortzen den lurrunarekin harrituta.

Baina sagardotegian ez da dena amaitzen. Kafea, kopa eta purua ere hartu behar dira etxera joan aurretik, eta lehenik gutxi edanak izan balira ere!...

Hori guztia gorputzean sartu ondoren, kotxea hartu eta alkoholemia kontrolik topatuko ez den biderik ziurrena hartzen dute, eta etxera halatan iritsi.

Andrearen alboan ohean sartu (beno, ez dutenak gau horretarako behar den tokira joaten dira bila, gogorik izanez gero, baina zail samarra ikusten dut anaia txikia funtzionamenduan jartzea edan duten guztia edan ondoren), eta andreak, "ederra ekarri duzu gainean gaur ere, bihar ikusiko dugu nola pasatzen duzun eguna"...

Maixa Lizarribar

TXUTXUMUTXUAK

BEGIRADAK

Hausnarketa hau, Gasteiztarrei ez ezik, Euskal Herriko beste EUSKALDUNEI zuzenduko nieke.

Beste hainbati bezala, "ikastera" etorri nintzelarik, arrotza egin zitzaidan Gasteiz, erabat ezezaguna eta.... ezberdina. STOP. Ezezaguna, arrotza, ezberdina.

Horra hor euskaldun askok Gasteizetikiko dituen hiru sentsazio. Araba Euskal Herriko zatirik arrotza zaigu, askori: beste probintzietako euskalduneri, abertzaleoi zehaztuko nuke. Ahaztua, euskaldunaren unibertsoetik at, ez-popularra, politikoki baztertua, ardi ikustezina, euskal nortasun propiorik gabea, arrotza, abandonatua, zazpi garren alaba eta.... zortzigarrenik ez dagoelako... Kanpo begirada.

Iparraldeak, Nafarroak... euskaldungoaren, edo esan dezagun, abertzalegoaren (nere hiztegian sinonimoak diren hizak dira) adeitasuna, maitasuna, atxikimendua eta aldarrikapena jaso izan dute beti, gehiago ala gutxiago (ez naiz ari kode politikoan bakarrik, sentimenduen kodean baizik, primarioa dena). Arabak baino euskal nortasun nabarmenagoa zutenak eta dutenak dira Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa.

Araba beti anaia txikia izan da, probintzietan ezezagunena, ahate itsusia. Euskaldunak orokorrean hobeto ezagutzen ditu Iparraldea eta Nafarroa Araba baino. Sentsazioak dira, ez naiz arrazoiak aztertzen hasiko.

Jon Maia

Gasteizko uretan sartu nintzen, nahiko sakonera. Esparru dexente ezagutu ditut, giro erabat ezberdina, gune-mugimendu-jende alternatiboak, autoantolakuntza eredu ezberdinak, korrante-politiko-sozial bereziak, musikariak, unibertsiariak, irakasleak, funtzionarioak, intsumisoak, maila ezberdinetako abertzaleak, komunikabide alternatibo eta ez hain alternatiboak, gazteak eta ez hain gazteak,... Herriitik hona etorri izan ez banintz, nekez izango nituzke. Barne begirada.

Amorrua sortarazten dit behar gehien duenari laguntza gutxien emateak. Gasteizi horixe gertatzen zaio neurri batean. Horrela azaltzen dira gero UArean moduko putreak, biktima erreza jan asmoz. Arabak protagonismo handiagoa BEHAR du Euskal Herriaren argazkian eta eraikuntzan, protagonismo horrek mesede egingo liokeelako. Arabeko errelitateraren euskalduntzea, Euskal Herritarreza, erronka handia da, handiegia, inoren arretarik ez izateko.

Eta eskatzen hasita, hona etorri behar lukete gehiagotan beste probintzietako euskaldunek, geureago sentiitu eta ezagutzeko. Hona ekarri behar lirakete euskal kulturaren eta politikaren ekitaldi garrantzitsu gehiago; euskal nortasuna indartu dezagun denon artean.

Gustatzen ez zaionaren aurrean ezikusiarrena egiten du askok, egongo ez balitz bezela, baina Gasteiz ere errealtate bat da eta euskal lurra da, Orio, Lekeitio edo Beasain bezalaxe (Euskaldunen aurrean bertakoek dituzten konplexuez beste egun batean hitz egingo dugu).



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldua • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin
ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran • GASTEIZ

1998ko otsaila

2

IRITZIZ BLAI

- AHTren Aurkako Asanblada
- asier pz. de karkamo, bertsozaleei

3

KUTIXIK ETA TXUTXUMUTXUAK

4

BERTSOAK

- laura lopez, lehenengo bertsoak

5

KALEA MINTZO

Garizuma aurretik... ihauteriak!!!

6

EUSKARA

Arabako Ikastetxe Publikoetako Guraso
Elkarteek Federazioa sortu dute

EUSKALTZALEON ELKARGUNEA

I. Batzar Nagusi arrakastatsua

12

GIZARTEA

SAHARA

Elkartasunak mugak hausten dituenan

20

KIROLAK

Arabako Esku pilotak etorkizuna badu

24

GIZARTEA

Badatozela ihauteriak!

28

HAURRAK

Nolakoak gara?

30

KOMIKIA



Laura Lopez

LEHENENGO BERTSOAK



Bertsotan ikastea izan da
nire aspaldiko desira
Bertso Eskolan hasi berria
hemen nago jira-bira
orain bertso bat egin dezaket
nahiz ta ez izan distira
bertso paperak izan daitezke
baina bertsoak badira.

Lehenengo sorpresa aurkitu nuen
nik behin klasera joatean
argazkilari bat han zegoen
irakaslean parean
nire bertsoak agertu behar
Geu Gasteiz ale batean
gaizki edo ondo baina bertsoak
egin ditut azkenean.

ZUZENDARIA:

ESTITXU BREÑAS GLEZ. DE ZARATE

ERREDAKZIO-BATZORDEA:

LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI, ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL,
LOREA ZURIMENDI, RAUL SAEZ DE BURUAGA, TXABI
ARNAL-GIL.

MAKETAZIOA:

ALEX BADILLO ETA ASIER PZ. DE KARKAMO

KOMIKIA ETA MARRAZKIAK:

INIGO SARASOLA, AITZIBER IRIONDO

PUBLIZITATEA:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

ARGAZKILARIAK:

EDORTA SANZ.

KOLABORATZAILEAK:

UNAI URIARTE, TXIPI ORMAETXEA, JUAN JOSE
KASTRESANA, ION MAIA, ABEL ENBEITA, MAIXA
LIZARRIBAR, MIKEL GARMENDIA, IMANOL BARRUTIA

INPRIMATEGIA:

GERTU KOOP. E. (ZUBILLAGA, ONATI)




15

elkarrizketa

ARANTZA ZENARRUZABEITIA

"Euskara ez da nire ardura,
zinegotzi guztiena baizik"



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta
Euskara Sailak diruz lagunduriko aldizkaria

GEU
GASTEIZ EUSKALDUNA

Lege-Gordailua VI-582/92

ISSN: 1133-0988

Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

GEU Elkartearen
babesarekin



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

gasteizko euskaldunon aldizkaria

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

berren ahotan

Garizuma aurretik... ihauteriaak!!!



anne garate
ERIZANA

1.º Oso ondo ikusten dut jendea mozorrotzea, ohitura da eta. Ni, gainera, egunero mozorrotzen naiz.

2.º Ez naiz konpartsa batean ibiltzen. Desfilea ikusten dut, baina ez naiz parte hartzera animatzen. Txikitan egiten nuen.



eva sobron
ETXEKOANDREA

1.º Asko gustatzen zait eta betidanik mozorrotu egin naiz. Iaz, adibidez, 'pinguinoz' atera nintzen.

2.º Normalean koadrila edo mutil lagunarekin ibiltzen naiz. Konpartsa batean ibiliz gero, primeran pasatuko nukeela uste dut.

Kristau-erlijioan, garizuma, penitentzia eta otoitza egiteko garaia izaten da. Baina garizumari kontrajarrit, hortxe ditugu jaigiroan ospatzen diren ihauteriaak. Ihauteriaak, normalan otsailaren bigarren hamabostaldia ospatu ohi dira. jai hauetako berezitasunik aipagarriena jendea mozorrotzea da, eta euskal herrian aspaldiko elementu sinbolikoak gorde izan dira (Zuberako maskarada, Lantzeko ihauteriaak, Zanpantzarrak, Zalduodokoak, Altsasukoak...). Horrez gain, famatu diren hiriko ihauteri modernoak ere badaude, Tolosakoak kasu.

- 1.- ZER DERITZOKU IHAUTERIETAN JENDEA MOZORROTZEARI?
- 2.- KONPARTSETAN PARTE HARTZEN AL DUZU?



xabier glez. pinedo
IKASLEA

1.º Ondo dago. Batzuetan mozorrotzen naiz baina amonak erabakitzen du noiz, berak josten baitzikit mozorroak.

2.º Ez naiz konpartsa batean ateratzen, lagunekin elkartu ea Kutxi aldera joaten baikara.



aitor pz. alegria
IKASLEA

1.º Urtean behin jendea mozorrotzea primeran dagoela uste dut. Hala eta guztiz ere gutxitan mozorrotu naiz. Azkenengoz 'mexikanoz'.

2.º Nahiz eta gustatu ez dut inoiz pentsatu konpartsa batean ateratzea. Agian, hurrengo urterako utziko dut.



karlos alberich
IKASLEA

1.º Ondo pasatzeko aukera dibertigarria dela uste dut. Iaz, adibidez, sorgin bihurtu nintzen.

2.º Lagun guztiak mozorrotzen gara eta primeran pasatzen dugu. Azken urteotan, Gasteizen izan ez naizenez, en naiz konpartsetan atera.



elisabete agirre
IKASLEA

1.º Egungo ohitura jendea ondo pasatzeko aukera ederra delakoan nago. Beti mozorrotu egin naiz; iaz 'mexikanoz'.

2.º Klaseko lagunekin ateratzen naiz. Larunbat gauean irteten gara gure kabuz eta konpartsak bezain zaratatsuak gara.

OLARIZU MENDI
HERRIKO TABERNA
JOSE URUÑUELA
KALEAN

GASTEIZKO
IRUBIDE
RAMIRO DE MAEZTU
KALEAN
HERRIKO TABERNA
HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA
"SAN FRANCISCO
JAVIER" KANTOIAN

Trikibertsoa Gasteizen

Otsailaren 5ean izango da aurreneko saioa Bilboko arrakastaren ostean

Bizkaiko hiriburuko Bilbo-rock aretoan eskeiniriko saioak izandako arrakastaren ondoren, gure hiriko Principal Antzokiak bere arroparik hoberenak jantzi ditu otsailaren 5ean 'Trikibertso' ekimenak Gasteizen egingo dituen agerraldien aurrenekoa jasotzeko.

Ez dira, gainera, edonolokoak saioan parte hartuko dutenak; Imuntzo eta Beloki izango baitira Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikanoen bertsoei musika jarriko dietenak.

Baina ez da saio bakarra izango, hurrengo hileetan beste bi antolatuko baitira. Martxoaren 3an, Maixa ta Ixiar hirukotea ariko da, Xabier Amuriza, Jon Sarasua eta Igor Elortzarekin. Apirilaren 22an, berriz, Gozategi Aniak hurbilduko dira, Jon Enbeita, Aitor Mendiluze eta Jokin Sorozabalekin batera.

A. P.

'Denon Eskolak' bere egitasmoen berri eman du

Arabako Ikastetxe Publikoetako Guraso Elkarten Federazioa da D.E.

Arabako Hezkuntza Publiko-ko Ikasteetxetako ikasleen gurasoen Federazioak bere helburuen berri eman zigun urtarrilaren 15ean egindako prentsaurrekoan. Honako hitzetan labur daitezke Denon Eskolak dituen helburuak: Partehartzea; Irakaskuntza humanistikoa eta zientifikoa; Euskal Herrian kulturalki era dinamiko eta sorgarri batean errotutako irakaskuntza, kultur identitatearen berreskuratzean diharduena; Dohainiko Irakaskuntza; Irakaskuntza

autonoma, demokratikoa eta anizkorra; Berdintasunean



oinarrituta, adierazpen askatasuna bermatuz, diskriminazioa ekidituz...; Hizkuntza ofizial bien ezagutza eta erabilera ber-

matuko duen derrigorrezko eskolatzea eta, azkenik, aita-amen eskaerari erantzuna emango dion Haur Hezkuntza eskaintza eskatu eta era berean derrigorrezko hezkuntzaren ondoren ikaslegoari erantzun egokia lan mundura heldu arte.

Informazio gehiago 25 61 62 telefonon edota Florida Kalean, 62 zenbakian. Adi

egon, otsailean zehar ainbat ekintza burutuko baitute.

Estitxu B.

Matrikulatu!

Hiriko Euskaltegiak matrikulazio kanpainari ekin diete

AEK, IKA, Hegoalde eta Udaberriak datorren ikasturteari begira matrikulatze kanpainak hasi berri dituzte. Talde hauek Gasteizen dituzten Eus-

kaltegiak otsailaren erdialdean (16an hain zuzen ere) ekingo diote ikasturte berriari.

Azken hilabeteotan gure hizkuntzak jasan dituen erasoeri aurre egiteko parada ederra dugu, beraz, euskara ikasi edota gure euskara hobetuz.

Euskaltegiak ere euskaldunoi luzatu nahi digute beren mezua. Izan ere, AEK-k kanpainia honetarako aukeratu-

duen leloa erabiliz, 'Euskara galduz gero, akabo Euskal Herria!'

Informazio gehiago behar duzutela? Aipatutako elkarteek aldizkari honetan jarririko iragarkietan agertzen diren telefonoetara deitu eta zuei hoberen datorkizuen eskaintza aukeratu.

Esan bezala: aitzakiarik ez!

Asier Perez de Karkamo

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak automatismoak
girotzeko musika eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 **20600 EIBAR**



ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

EGOIA LIBURUDENDA



LIBURUAK • MUSIKA • MATERIALE BIRZIKLATUA
Mannel Iradier kalea, 9-A Tfnoa. 11 88 95



PARRAL TABERNA.

• ASTERTERO KONTZERTUAK • ANTZENAK
• JANTOKI BEJETARIANOAK • PINTSAK

TABERNA



Upabi San Antonio, 39

Literatura Unibertsala euskaraz irakurtzeko bost aukera gehiago

Bost liburu euskaratu berri dituzte Eusko Jaurlaritzak, EIZIE eta Ibaizabal argitaletxeak

Urtarrilaren 9an Montehermoso Kulturuneak bost liburu berriren aurkezpen ekitaldia jaso zuen. Liburuok, Eusko

Jaurlaritzako Kultura Sailak, EIZIE elkarteak eta Ibaizabal argitaletxearen ekimenaren barnean kokatzen dira. Aipaturiko hiru erakundeek literatura unibertsalaren ehun lan argitaratzea dute helburu.

Ekitaldian, liburuon itzultzaileekin batera, Josune Ariztondo, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburordea, Mikel Garmendia, EIZIE elkarteko ordezkaria (eta Geu Gasteizko kolaboratzailea) eta Fermin Iralagoitia, Ibaizabal argitaletzeko zuzendaria izan

ziren.

Hona hemen euskaratu berri diren bost liburu horiek eta beren itzultzaileak:



Ezkerretik eskuinera, Fermin Iralagoitia, Mikel Garmendia eta Josune Ariztondo, aurkezpenean

Ostegun izan zen gizona (Gilbert Keith Chesterton), Juan Garziak itzulia.

Finzi-Continitarren lorategia (Giorgio Bassani), Koldo Bigurik itzulia.

Hemeretzi ipuin (Hans Christian

Andersen), Martxel Eguenek itzulia.

Jubiabá (Jorge Amado), Valentin Olaetxeak itzulia.

Antologia (zenbait poeta katalanena), Gerardo markuletak itzulia.

Asier Perez de Karkamo

Euskararen TXOKOA

Salatu ditzagun euskarari eginiko erasoak, txalotu dezagun euskararen aldeko lana.

Argazkiak, salaketak, edota beste edozein informazio mota eskertuko dizkizuegu

Geu Gasteiz aldizkaria
Pedro Asua, 2 - 3.a
FAXA: 22 21 53


Barneko orrialdeetan Arantza Zenarruzabeitia Udaleko Kultura eta Euskara Zinegotziari eginiko elkarriaketa interesantea daukazue irakurgai. Besteak beste, Euskara bere ardura izan ezezik zinegotzi guztien ardura ere badela esaten du. Datozen argazkiak beraientzako dira, beraz. Komentariorik gabe!



ZURE GUTUNEN, FAXEN ETA ARGAZKIEN ZAIN GAUDE. GARRANTZITSUA DA, BENETAN. ESKER MILA!

HARPIDEDUN! DATOZEN HILABETEETAN AURTENGO KUOTAK KOBRATUKO DITUGU

HARPIDETZA TXARTELA



Izena-Abizenak: _____

Kalea: _____ zkia: _____ solairua: _____ Kodea: _____ Herria: _____

Lanbidea: _____ Jaiotze data: _____ Telefonoa: _____

Kuota: 1.500 pzta. urtean

Kontu korrontea:

entitatea

bulegoa

kontrol zkia

kontu zenbakia

Pedro Asua, 2, 3 a 01008 Gasteiz tel / fax: 22 21 53

Euskaltzeleon Elkarguneak aurtengo lana zehaztu zuen

I. Batzar Nagusian berrogeiren bat lagunek parte hartu zuten

Euskaltzeleon Elkarguneak joan den urtarrilaren 24an egin zuen I. Batzar Nagusian aurtengo lan zehazteko dituen erabakiak onartu zituen. Administrazio arloan, Foru Araugaia eta Udal Ordenantza, eta irakaskuntzan, D ereduaren aldeko kanpainak bultzatzea izan ziren, batzateko, asanbladak hautatu zituzten lehentasunak. Honetaz gain, Gasteizen euskarak aurrera egiteko dekalogoak onartu ziren.

Euskaltzeleon Elkargunearen I. Batzar Nagusian aurkeztu ziren lehentasunen artean hiru baino ez ziren hautatu. Arabako Foru Aldundian eztabaidatzen ari den Foru Araugaia izan zen boto gehien lortu zuen lehentasuna, gero Gasteizko "Hizkuntza ofi-

ziazal ordenantza" eta azkenik, euskal irakaskuntzaren alde lan egitea, bereziki D ereduaren.

Lehentasun guztiak atalez atal aurkeztu ziren; administrazioari dagozkionak, komunikabideen arloarenak, lan munduaren mailakoak zein kulturarekin erlazionatuta daudenak.

Euskaltzeleon Elkarguneak lehentasunak hautatu ezezik, orain arte egindako lana ere aztertu zuen. "Gasteizko euskal taldeen arteko informazioa eta elkarlana iraunkorki bideratzea oso positiboa da" adierazi zuten Elkarguneko bozeramaileek, asanbladarekin bat etorriz. Hala ere, "Udal Ordenantza inguruan burutu dugun lanean ez dela emaitza onik lortu" azaldu zuten; "dena den, gizartea euskararen alde kontzientziatzeko eta euskararen mundura jende gehiago erakaritzeko benetako Udal Ordenan-

tzaaren aldeko kanpaina balio-garria izan zen".

FUNTZIONAMENDUA

Euskaltzeleon Elkarguneak koordinazio eta eraginkortasun falta nabaritu du orain arte egindako lanean. Honi irtenbidea emateko Elkarguneak "plangintza propioa izan behar du, eta hau gauzatu ahal izateko, helburuak eta bitartekoak zehaztu beharko dira". Dena den, Euskaltzeleon Elkargunearen inguruan lan egiten duten taldeek elkarrekin eta lagun gehiagoren inplikazioa beharrezkotzat jotzen dute, zehaztutako premia eta lanei helburu izateko. "Gaur egun Euskaltzeleon Elkargunean partehartze iraunkorra ez duten taldeekin lan berezia egin behar dugu gure helburuak, lan metodologia, laneko lehentasunak eta beharrak azaltzeko. Talde horiek denborekin Euskaltzeleon Elkargunean integratzea da gure helburua".

Raul Saez de Buruaga (GEU ELKARTE ETA EUSKALTZELEON ELKARGUNEKO KIDEA)



DIBUtec
 Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01
 • Material escolar y de oficina
 • PAPER BIRZIKLATUA
 • FotoKopiak
 kolorez eta Zuri-Beltzean
 Arte ederretarako...
 behar duzun guztia

PAPERTEGI TEKNIKO

TXVSTA
 TABERNA
 ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**
 Mateo Moraza kalea
 GASTEIZ

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
 Korreria, 14 MIKEL DEUNAREN PASABIDEA
 Tfno: 12 08 88
 01001 - GASTEIZ

Tu Invernadero zure lore sortak
ALDABE 6, BEHEA
 tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

bar * restaurante
Portal del Rey 9
albéniz
GASTEIZ

Gasteizen euskarak aurrera egiteko dekalogoia

1. Euskaldunok egiten gaituena gure hizkuntza da, euskara, hain zuzen ere. Euskal Herria euskararen herria da, eta euskalduna euskara duen pertsona.
2. Euskara Euskal Herriko, eta beraz, Arabako berezko hizkuntza da. Euskarak, arrazoi ezberdinengatik, Gasteizen eta Araban atzerapena nozitu du urteetan zehar. Gaur egun egoera diglosikoa dago eta bere normalizazioen aldeko neurrien beharra dugu.
3. Euskaltzaleok Araban giza-multzo zabala, plurala eta heterogeneoa osatzen dugu. Euskararen inguruan dabilen edozein ekimenek, ezaugarri horiek kontuan hartu beharko ditu.
4. Arabako euskararen unibertsoa gorabidea da etengabe. Arabar gehienek borondatea da hazkunde horren arrazoi nagusia. Dena den, euskarak garapen osoa eta eutsigarria izateko motibazioan, ezagupenean eta erabilpenean aurrerapausu garrantzitsuak eman behar dira.
5. Euskarak premia larriak ditu gaur egun Araban, bai Administrazioan, bai lan munduan eta baita bestelako gizarte-arloetan ere. Arabar gizarte osoak jarrera aktiboa erakutsi behar du.
6. Euskarak berak nozitzen duen egoera kaxkarrak euskaltzaleok, sarritan, talde endogamikoak osatzera behartu gaitu.
7. Nolanahi ere, gaurko gizarteak gizaki eleantzik eskatzen ditu, bai lan munduan aritzeko, baita giza eta gizarte-harremanak lantzeko ere.
8. Euskararen berreskurapen-ahalegin horretan, herri ekimenak funtsezko garrantzia du. Euskararen inguruan dabilzan herri erakundeak berreskurapen horren sostengu eta bermalerik onenak izan dira orain arte.
9. Araban esku hartu duten administrazio ezberdinek zeregin handia dute euskararen berreskurapenean.
10. Administrazioek orain arteko hizkuntza politikaz gogoeta zintzoa egin behar dute, okerrak eta akatsak zuzentzeko eta oraingo eta etorkizun hurbileko beharretara moldatzeko.

LA RIOJANA
jatetxea
on egin! **EGUNEKO MENUA**
ETA KARTA

Kutxilleria, 33 tfoa. 25 02 39

CANAL GASTEIZ *ek*

BERTSOLARIAK GASTEIZKO PLAZARA

Otsailaren 29an Larunbata **Printzipal Antzokian** Arratsaldeko 8etan



Geu Elkarteak antolatzen duen bertso saioa **DIFERITUAN eskainiko du OTSAILAREN 29AN igandean goizean**



INFORMAZIOA

2, 3 ETA 5 ORDUKO IKASTAROAK
EGA, MINTZA ETA URRATS GUZTIAK
BENETAN: EUSKARA ORDENAGAILUZ

Pintoreria, 74 Telf.: 28 97 80 Zaldiaran Plaza, 16 Telf.: 24 49 05
Errege Katolikoak, 15 - C Behea Telf.: 28 89 22 / 44 Gasteiz

*HABEren dirulaguntza antolatua

MATRIKULA EPEA
urtarrilaren 19tik otsailaren 6ra

geu gasteiz
eurekin
mendira

TOLONO

(1263 m)

1997ko azkenengo txangoa

Mendi bat baino gehiago Toloño mendi multzo bat da. Kantauri eta Kodezeko mendizerrekin batera Arabako Mendialdea eta Errioxa bereizten ditu mendebaldetik ekialdera. Izen handiko mendia dugu mendizaleen artean, ez bere altuera edo zailtasunagatik, baizik eta bere kokapenak ematen dion garrantziagatik. Urteetan zehar bai Errioxako eta bai Mendialdeko biztanleek erakutsi dute Toloñoren garrantzia, eta horren aztarnak aurki ditzakegu bertan oraindik ere.

NEGUKO goizetako eguzkiak noizbehinka ematen digun argi garbi zoragarri horrekin azaldu zitzaigun abenduaren 14 igandea. "Txapela" genuen betiko moduan biltokia eta handik abiatu ginen talde osoa Errioxa aldera kotxez goizeko 9,30etan.

Baina Errioxara iritsi aurretik izan genuen harridurarako aukera. Trebiño konterrian sartzearekin batera Zadorraren inguruan

sortzen zen laino lodi batek bildu gintuen. Argantzun, Beranturi eta Zanbrana erabat lainopean zeuden. Ebro bera ikusterik ere ez zegoen. Pentsatzen ere hasi ginen Toloño ikusterik ez genuela izango. Baina Buradon eta Bilibio mendien artean Ebrok sortzen duen hestugunea zeharkatzearekin batera laino guztia desagertu eta zerua berriro oskarbi agertu zitzaigun. Hantxe ikusi genuen Toloño, Bastida

herriari bere babesa eskaintzen.

Bastidako San Ginés izeneko baselizaren ondoko aparkalekutik hasten da ibilbidea. Bidea garbia da eta ongi adierazita dago. Hogeitalau ginen guztira taldean eta bi zangoei eraginez aldapan gora hasi ginen. Beno, ez dezagun Iris ahaztu. Hura ere gurekin zetorren, baina hiru zango erabiltzen zituen...

Toloñoren hegoaldetik doa bidea, gailurra iparraldera gelditzen delarik. Baina mendi-bizkar batzuk sahiesteko bideak ezker aldera egiten du, pista bat harturik iparmendebalderuntz. Gero ibilbideak iparraldera egiten du eta, pista amaitu eta gero, bide batek ia guztiz eroria dagoen El Humilladero baselizara eramaten gaitu.

Aurreko bidea utzi eta baselizaren atzetik sortzen den bideska bat hartuz, gora egiten du ibilbideak inguru harritsu batetik zehar. Orain bai ikusten dugu benetako mendia.



 **uetzal**
HegoAmerikako
jantziak ederrenak
PINTORERIA kalea • S. Franciscoren
kantoian ertzean Tfnoa: 25 03 52

**ONGI
ETORRI**
xurrut

KUTXI 103
GASTEIZ

1970ak

**BEIRATE
ESTUDIOA**
Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ



GEUrekin MENDIRA

OTSAILEKO TXANGOA

**ARALAR (Txindoki 1346 m)
Guardetxetik Larraitzera**

otsailaren 15ean

Irteera: Goizeko bederatzietan (kontuz, besteetan baino ordu erdi lehenago da eta), Prado kalean, Txapela tabernaren aurrean.

Autobusez joango gara. Izen ematea bertan.

Itzulera: arratseko zortziak aldera, toki berean

Ibilbidea: Guardetxe (1035 m), Errenagako aterpeak (1220 m), Irazustako lepo (1264), Larrunarri-Txindoki-Ñañarre (1346 m), Larraitz (403 m). Itzuli baino lehenago, ordubeteko atsedean lasaia hartuko dugu Larraitzen

Zerbait gehiago jakin nahi izanez gero, deitu telefono honetara:
28 2316 (Maite)

Aldaparen gogortasunak eragindako arnasestua baretzearen egindako geldialdiek, oraindik guztiz esnaturik gabeko Errioxa ikusteko parada ematen digute. Laino mehe batzuen artean agertzen zaizkigu mahastiak, Ebroren meandroek sortutako lurretan sustraituak.

Bidean gora goazela, ustekabean, Toloñoko Andra Mariaren elizaren hondakinak topatu ditugu. Zutik dirauten apurrek garbi asko erakusten dute eliz honek izan zuen garrantzia. Barrokoaren hainbat ezaugarri ikus daiteke bertako abside, kapitel eta zutabeetan. 1835ean, lehenengo karlistada bitartean, su eman eta suntsitua izan zen. Hala ere, bertan zegoen Toloñoko Ama Birjinaren irudia salbatu zen eta Bastidako elizan omen dago gaur egun. Elizaren inguruan oraindik ere ikus daitezke elurtegiak,

lurrean egindako zulo handiak, non neguko elurra gorde eta fraileek udaran erabili eta saltzen zutena.

Gailurra ikus daiteke elizatik eta bideak bost minutu baino ez ditu behar bertara iristeko. Guztira ordu eta erdi gutxi gorabehera. Mendi gutxik dute Toloñok duen ikusmira. Iparmendebaldetik Picos de Europa, Pirineoak Iparrekialdetik. Iparraldean Arabako Mendialdea, pagadi zoragarriak eta herriak (Lagran, Pipaon...) eta aurrean Gasteizko mendiak, Badaia, Gorbeia, Anboto, Udala, Aizkorri, Aratz, Aralar... Ekialdera, jarraian, Kantauriko Mendizerra (Eskamelo, Palomares, Gazteluko Gurutzea, Leon, San Tirso, Peña Alta, La Poblacion, Yoar, Kostalera...). Ez da lan makala gailur guztien izena asmatzea...!. Hegoaldera berriz Sierra de la Demanda, San Lorenzo elur-

tua duela nagusi. Hegoeki aldera Moncayo... Hauxe bai leku egokia gure oihua botatzeko: "GEU GASTEIZKIN denok mendira...", eta jauziarekin batera guztion erantzuna airean... "tralara, lalaralara!"

Nekearen ondoren egokia da jan eta edatea. Berriro ere elizara jeitsi eta haren magalean, harkaitz batean jarritako jaiotzaren ondoan, ekin genion hamaiketakoari. Ederra gainera hamaiketakoa!.

Batzuk jan ondoren eleizari begira gelditu baziren ere, gehienek Toloñoko hegoaldeko gailurrera igotzeari ekin zioten. Ez zen bide

erraza, baina azkenean goraino igotzea lortu zuten, baita Txipiren oroigarria aurkitu ere. Dirudienek Toloñon izan zen baina ez GEUrekin egun egokian...

Jeistea erraza dela eta bide zuzen bat hartu genuen baso artean. Berehala jeisten da aurretik Joseba eta Iñakik (Arrietatarrak) markatutako bidetik. San Gineseko basilizan botak garbitu, ura edan eta, bakoitza bere aldetik, Gasteizera... Benetan egun ederra, nahiz eta Ebro eta Zadorraren inguruak oraindik ere lainopean jarraitzen duten...

Ramón Arrizabalaga

plató
TABERNA

☎ 22 65 64
GASTEIZ

Zaldiaran Plaza. 10

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK


zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

**BAR
KLAKÉ**

KUTXA, 2
TFNO.
143883

GASTEIZ



Mugak apurtu egiten dira

laguntza denean oinarrizko helburua

Mendebaldeko Sahara okupazio militarra eta isolamendua sufritzen ari da Marokoren eskutik. Hemen Araban egoera konpontzeko borrokatzen ari den Elkarte bat dago. Honen bitartez errepresio marokiarra, giza eskubideen bortxaketak eta abarrekoak salatzen dira.

Horrela, S.E.A.Den (Saharar Errepublikari Arabiar Demokratikoa) Lagunen Elkarteak Saharako herrialdeari laguntza eta elkartasuna eskeintzen dio. Era honetan, Elkarteak oinarrizko helburutzat autodeterminazio eskubidea eta giza garapen ekonomiko eta soziala dauka.

1976an Euskal Herriko lagun talde bat Herri Sahararra pairatzen ari zenaz kekkatzen hasi, eta gutxira Elkarteari nolabaiteko

hasiera eman zioten. Handik aurrera, beste talde batzuekin batera Saharako herriari laguntza ematen hasi ziren. Behin pausu hau eman zutenean, eta hortik hamar urtera Araban ere ezarri ziren.

Orduetik ugari izan dira

Elkarteak bizi izan dituen lorpenak, baina oraindik helburuak eta helburuak geratzen zaizkie lortzeko. Hauen artean nagusiena S.E.A.D (Saharar Errepublikari Arabiar Demokratikoa) delakoa-

ren onarpena, edo herri honen garapenerako kooperazioa eta giza laguntza lortzea. Bestalde, garrantzitsutzat jo ere egiten dute gure herriaren sentzibilitatea zuzpertz eta sahararrekiko politika, euren

kultura eta egoera zein den ezagutaraztea. Honez gain, herri bietako biztanleen

arteko harremanak sortzea eta hango inguru fisikoaren ikerketa egitea funtsezkoztat jotzen du Elkarteak, hango agintari eta erakundeekin kooperazioa lortzea ahaztu gabe.

Laguntza motak

Dagoen egoera ikusita, Elkartearen lana ezin daiteke mugatu giza laguntza eskeintzera soilik, honek herrialde honen sufrimendua luzatuko lukeelako. Horrez gain, autodeterminazio eskubidea bilatzen da. Arrazoi honexegatik hiru lan arlo mantendu ohi dituzte.

Alde batetik, giza laguntza dute lan nagusia. Kampainak antolatzen dituzte larrialdiko egoera edo oinarrizko beharretarako:

geu gasteiz

"Herri baten oinarrizko eskubideak baino ez ditu aldarrikatzen Sahararen Aldeko Elkarteak: Autodeterminazioa"

geu gasteiz

BITORIANO
 ZUIA • ARABA
 TEL. 43 00 73

★
 TABERNA
 RRA
 A
 JATEXEA

MIKO
 izozkiak

JATEXEA

XIXILU
 AMARIKA PLAZA 2
 23 00 68 GASTEIZ



Esan beharra dago, proiektu hauek Eusko Jaularitzak, Aldundiek edo Udaletxeek

alde egin zue-nean, Mauritania eta Marokok erasotu zuten lur maitagarri bezain zanpatu hau.



geu gasteiz

"Okupazioak mugatu egin ditu jasotzen diren laguntzak"

geu gasteiz

neguko jantziak, sendagaiak eta era guztietako materialak bidaltzen dira. Kanpaina hauetan euskaldunen partehartzea bilatzen da, bolondres lanetan aritzeko, diru laguntzak eskuratu nahian, eta abar...

Bestetik, Elkarateak herri honen garapenari laguntzen dioten ekintzak burutzen ditu, osasun arloan, elikagaietan, hezkuntzan eta abar.

Azkenik, proiektu hauen xedea herri hau beharrezko giza egiturez hornitzea da, beraien bizimodua hobetu eta kanpo menpekotasuna murrizteko asmoz. Bestalde, nahiz eta errefuxiatuen komunitate osoak jasotzen duen proiektu honen laguntza, emakumezko, ume eta gaixoentzat pastelaren zatirik goxoen gordetzen da.

kofinantziatuta koak direla eta Entitate publikoek edo pribatuek parte hartzen dutela bertan.

Herri okupatua

Lehenengo Saharako herriak Espainiako kolonizazioa jasan zuen eta 1974an, Estatu Espainolak Mendebaldeko Saharatik



Egoera honek (Sahara okupatua) biztanleen ihesa ekarri zuen basamortuaren barnealdera, Aljeriaren hegoaldera; Tindoufera hain zuzen.

Egun, ihesari esker, 180.000 errefuxiatu inguru bizi da Polisario Frontearen kanpamentuetan, exilioan, ... Estatu berri honi

Saharako Arabiar Errepubliko Demokratikoa deritza (SEAD), gaur egun 75 herrialdek osatzen dutena. Afrikako Batasunerako Elkarteko kide ere badugu. Esan beharra dago Polisario Fronteak gerra guneko zonalde bat askatzea lortu duela...

1991an Nazio Batuen Elkarateak (NBE) bake plana ezarri zuen, Autodeterminazioarako Erreferenduma aginduz. Egun, sei urte pasata dagoeneko, oraindik erreferendum garbi eta demokratiko baten esperoan dira. Menperatutako herri honek atzerriko laguntzaren beharrean dihardu...

Aurten, abenduaren 7an, Erreferenduma ospatuko dela zin egin dute, egia izango ote da ala berriz ere ziria sartuko?



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO

ERDIALDE

LAKUA

ZARAMAGA

BERTSOLARIAK GASTEIZKO PLAZARA

Otsailaren 28an
Larunbata

Printzipal Antzokian

Arratsaldeko
8etan



SARRERAK

ALDEZ AURRETIK (Herrikoia, Axular, Bagare, Araba Euskaraz Denda)

·GEU GASTEIZ aldizkariko harpidedunentzat:

600 pzta

·Arruntar:

800 pzta

EGUNEAN BERTAN

·Printzipal Antzokian:

1.000 pzta

ANTOLATZAILEAK

GEU
GASTEIZ EUSKALDUNA

gasteiz
gasteizko euskaltzainen aldiakaria

5.
URTEURRENA
...Zorionak!

BABESLEAK

CANAL GASTEIZ
54
TELEVISION

Bagare
EUSKAL TOKIA
EL CORREO

AYUNTAMIENTO DE
VITORIA GASTEIZ
U.D.A.L.A.

El Periódico de Alava
Arabako Egunkaria
RADIO VITORIA

Egunkaria
Diputación
Foral de Alava
Arabako Foru Aldundia

egin

DEIA
Tu Invernadero

ARANTZA ZENARRUZABEITIA

Udaleko Kultura eta Euskara Zinegotzia

"Euskara ez da nere arloa, zinegotzi guztiona baizik"



GASTEIZEN EUSKARAREN ARLOA ikutzen den bakoitzean arazoak daudela aitortu du Arantza Zenarruzabeitia, Udaleko Kultura zinegotziak. Hala ere, gauzak ondo azalduz gero, gobernukideekin arazorik izango ez duen itzaropena adierazten du. Dena den, ezin jakin karguak eskatzen duen diplomaziak bultzatuta edo bai-kortasunak eraginda, baina galderi erantzuten baloia

sentsibilitate aldaketa ekarriko zuela iragarri zuen Arantzak Zenarruzabeitia.

uela sei urte hautatu zuten zinegotzi eta iazko udako Udal Gobernuako krisi eta haustura eta gero Kultura zinegotzi kargua hartu zuen Arantza Zenarruzabeitia. Kargua hartzean, abertzale izateak sentsibilitate aldaketa bat ekarriko zuela iragarri zuen. Igaro diren lau hilabeteetan Kultura zinegotzi berriaren *sentsibilitatea* ezaguterazi duen saiakerarik egon ez denik ezin esan -Udal Haur Eskoletan eredu bakarra, eta elebiduna, ezartzeko proposamenak zeresan ugari sortu zuen-, baina Gasteizen euskara, kultura eta hezkuntza arloan aldaketak pausoz pauso egin behar direla uste du.

Kargua hartzean abertzale izateak kanpora jaurtitzen iaioa benetan emakumea!!
Abertzale batek Gasteizko Udaleko Kultura saila hartzen zuela nabaritutako zela esan zenuen, irailean, kargu berria hartzean. Gasteiztarrek zer bait nabaritu dutela uste al duzu?

Hori egunkari batean agertu zen. Galdera bat egin ondoren esan nuen: Nabaritutako da? Noski, nabaritu behar dela. Zertan ez zidan galdetu. Baina titularrean agertu zen nabaritutako zela, nire ahotan jarri zituen hitz horiek; elkarrizketaren ondorioz atera zuen titularra.

Nabaritu? Nik uste dut pixka bat nabaritzen dela. Ez dut esaten gauzak aldatzen direnik gaurtik hurrengo egunera karguan bat edo beste bat egoteagatik, baina abertzale bat egotea zerbaitetan nabaritu behar da.

Ez da gertatzen batek zer edo zer nahi eta hurrengo egunean egin; gauzak ez dira horrela, botoen arabera egiten da. Gure botoak, EAJrenak, bederatzi dira eta hogeita zazpi lagun gaude Osoko Bilkuran. Zaila izaten da norberak nahi duena aurrera ateratzea, baina zertxobait lortzen da.

Gasteizko Udaletxean ez dago euskararentzako sail berezirik. teorian sail guztiak dute ardura euskararen arloan. Horrek ez du erabakiak hartzea zailtzen? Zure sailak zer eraman ohi du zehazki?

Beti niri esan didate, eta horrela agertu naiz egunkarietan, Euskara Zinegotzia. Hori pozgarria da eta sekula ez dut esan hori gaizki zegoenik. Baina ardura nirea izateaz gain, beste guztiena ere bada.

Udaletxean ez dago euskara saila jorratzen duen departamenturik. Departamentu eta politiko guztien ardura da. Nik ezin dezaket esan euskara arloan ardurarik ez dudarik, baina guztiok daukagu...

Orduan zertan zehazten da zuk euskararen arloan duzun ardura?

Kulturari; baina kultura ez da ez gaztelaniaz, ez euskaraz, unibertsala da. Euskal kultura hor dago. Hori da nire ardura.

Kaleen izena aukeratzea ere bai. Hor akatsak salatu dira eta egia da gauzak ez direla beti ondo egiten. Nire ardura, arlo zehatz horretan, Gobernu Komisioari izenak proposa-

Orain
guztiok
badakigu
gure
arduretako
bat euskara
zaintzea
ere badela,
eta ez
Euskara
Sailarena
soilik.



tzea da. Nik uste dut hor ere aldaketa txiki bat egon dela. Hainbat kaleren izenak, beste pertsona batek proposatutakoak balira, agian ez zuten sensibilitate hori isladatuko. Eta gainera zorte handia izan dugu Udal Batzak horiek onartzean.

Lehen, Kulturako aurrekontuan gurasoak eta langabetuak euskalduntzeko dirua sartu behar zen, orain, berriz, arlo hori Presidentziara pasatu da, Euskara Zerbitzua Presidentzian baitago.

Gauza bera funtzio publikoko hizkuntza eskakizunak, langileen ikastaro, eta abarrekoekin. Orain Kulturak ez dauka horretarako diru partida berezi eta zehatzik, baina nahiz eta nire arloaren betebeharra ez den, nire ardura bada, beti.

Horrek ez al du erabakiak hartzea zailagotzen eta eraginkortasuna murrizten?

Ez. Horrela egin badugu, hobeto dela uste dugulako da. Pertsona batek ardura guztia eramatea ezinezkoa da. Eta orain Departamentu guztietan

horren ardura zuzena dute.

Lehen, askok pentsatzen zuten (gauzak aldatzen dira, zorionez) Euskara Sailak baino ez zuela euskara zaindu behar (testuak euskaratu, langileak euskaldundu...), orain guztiok badakigu gure arduretako bat euskara zaintzea ere badela.

Hurrengo urterako Aurrekontuak ez dira oraindik onartu. baina prestatuta daude. Zeintzuk dira Kultura Saileko aurrekontuaren ardatzak?

Nik arlo bat dut, baina hiru departamentu. Diruari dago-kionez, gauzak zelan izango diren ezin esan dezaket oraindik. Eskaerak egin dira, baina eskatzen duzun guztia ez dizute ematen. Normala da...

Orain arte ikusitakoaz ez naiz kexatzen. Gainera, udaberrian beste pausu bat egongo da; Udalak FOFEL bezalako diru laguntzak jasotzean, baliteke arlo bakoitzarentzako diru apur bat gehiago izatea. Beraz, ez naiz kexatzen, eta espero dut orain eman ez didatena

orduan jasotzea.

Zertan geratu da Udal Haur Eskoletan eredu elebiduna soilik jartzearen zure proposamena?

Hori izan zen nik egindako proposamen bat, zeren sekula ez bainaiz A ereduaren alde egon.

Lehen ez zegoen eredurik, ez A, ez B, ez D... Bakarra zegoen eta elebiduna zen. Gauzak aldatu eta eredu horiek ezarri ziren. Egia da guraso gehienek B eta D ereduak eskatzen dituztela. Hala ere, gauza bat da eskatzen dutena eta bestea gurasoen eskaera zehatzekin taldeak bete ahal izatea. D eredu eskatzen bada, gehienek Ba eskatzen dutenez, haur horiek agian Bra pasatu behar dira, eta A ereduarekin gauza bera gertatzen da.

Baldintzak eta gurasoen eskakizunak aldatu direnez, taldeak egitea gero eta zailagoa da; horregatik, proposatu nuen eredu elebiduna jartzea. Ez dakit ez nuen ondo azaldu edo zer gertatu zen. Hemen ere-



duei buruz hitz egitean, zinegotziak, ez dakit zergaitik, baina, ez dut esango B eta D ereduaren aurka jartzeko direnik, baina bai Aren alde.

Orduan, nire itxaropena gurasoen erabakia errespetatu behar dela da, eta gurasoek B eta D ereduak aukeratu ohi dituzte.

Posible al da horrelako erabakiak EAJk aurrera ateratzea momentu honetan Udalean duen gobernuarekin?

Orain artean bai. Gauzak ondo azaltzen badira, posible da.

Ados al zaude ia onartu ziren Udal Normatibekin?

Guztia etorri zen Donostian Udal Arautegi bat onartu zelako. Guk denbora pilo bat eman genuen hango testua aztertzen, hamairu bat hilabete. Donostian onartutako testuaren erdia baino gehiago Legeak esaten duenaren errepikapena da. Gure ustez, hori guztia araudietan jartzea ez da beharrezkoa. Jadanik onartuta dagoen zerbait da. Horregatik, guk testu labur bat egin genuen, ni beti egon naiz testu laburren alde...

Jartzeko zuena? Udalak ateratzen duen guztia elebiduna izan behar dela. Baina Normatiba zeintzuk legetan oinarritzen den jartzea ez dela beharrezkoa uste dut.

Onartutako testua ez zen ongi ulertu, baina euskararekin beti gauza bera gertatzen zaigu. Lagundu beharrean, beti aurka. Nik ez dakit zer gertatzen den herri honetan...

Donostiako testua eta gurea aztertzen baduzu, egia da

gurea laburragoa dela, baina...

Eraginkortasunaren aldetik, berdinak?

Nire ustez, bai. Gainera, gauza ez da zer idazten den, gero hori betetzea baizik. Eta Udalak onartutako testua irakutzean, hori Gasteizen betetzea batere erreza ez dela konturatzen zara. Nahiz eta "orritxo" bat baino ez izan.

Beraz, elkarte euskaltzaleek minimoen Arantzia dela salatu duten arren zaila izango da betetzea?

Zaila ez, baina erreza ere ez. Langileak euskalduntzea, testu guztiak euskaraz kaleratzea... Nik uste dut Gasteiz nolakoa den kontuan hartu behar dela.

Duela hogeita hamabost urte edo, Gasteizera etorri nintzen lehenengo aldian, ikusi nuena eta gaur ikusten dudaren artean alde handia dago. Eta hori ez da baloratzen; aurrerapenak onartu beharrean, horrelakoak esaten dira...

Gainera, funtzionario guztiak ikasi behar dute, baina ez badute ikasten? Udalak ahalegin guztiak egiten ditu, baina gero langile bakoitzak ikasi behar du. Borondatea dute, baina berrogei urterekin hizkuntza bat ikasten hastea ez da erraza. Beraiek esan ere esaten dute ez dela apenas inor euskaraz hitz egiten hurbiltzen, eta ikasten dutena galtzen dutela...

Gauzak ulertu behar dira, hitz egin beharra dago, gauzak ez baitira oihuka lortzen.



alaba txikia zen bitartean zinegotzi izateko aukera, ezta okurritu ere!

pausoz pausoz ematen

Sei urte lanean

Arantza Zenarruzabeitiak Kultura zinegotzi kargu berrian urte erdi ere egin ez duen arren, Udaleko martxa ondo ezagutzen duen politikaria da. Duela sei urte hautatu zuten lehen aldiz zinegotzi, hogeita hamabost urte Gasteizen bizi den emakumea.

Sei urte nahiko izan dira Arantza Zenarruzabeitia, Gasteizko udal politikan bere txokoa aurkitu eta, gustora egoteko. Politikariaren tirabiretara aise ohitu dela ematen du, behintzat: *une txarrak ere badaude, egia da, eztabaidak eta, baina gai jakinetan izaten dira, eta ez da horrenbeste izaten. Orduetaz kexu agertzen bada ere, goizean bulegora etortzean ez dakizu zer izango duzun eta asteburu asko*

tan lan egin behar izaten dugu, asperetzeko betarik ez duela aitortu du, irrifarrez.

Gustora sentitu arren, oraindik ere emakumeek politikan sartzea zailagoa dutela onartzen du Arantzak: *Emakumeok beste era batean bizi ditugu hainbat gauza, eta alaba txikia zen bitartean zinegotzi izateko aukera, ezta okurritu ere!* Agian horregatik, zinegotzi izateko zerrendetan agertzea onartu baino lehen, hiru aldiz esan zuen ezetz, horrek arrisku bat du, noski: *zutaz ahaztu daitezke eta zuk nahi duzuenan, alderdiak nahi ez izatea gerta liteke. Ez zen horrelakorik gertatu. Arlo horretan ere, euskararekin bezala, aurrerapenak*

ari direla uste du Arantzak: *zerrendetan zenbat emakume agertzen diren begiratze-ko ohitura dut eta, ikus daitekeenez, ez dira asko, baina hori ere aldatzen joango da.*

Udal politikan ardura berriak hartu bitartean, hizkuntza eta literaturako klaseak eman zituen Gasteizko ikastola batean. Lan txarra ez zen arren, berak aspergarri gogoratzen du, *opor luze bezain beharrezkoak genituen, bai, eta ordutegi arazorik ez, lan segurua zen, baina aspergarria, urtez urte beti berdina.*

L.L. DE A.

Antzerki jaialdiak kritika zorrotzak jaso ditu. enskarazko ekitaldi gutxi sartzen dituelako. Printzipalaren neguko egitarauan zer leku du enskaraz?

Nik behin baino gehiagotan esan dut Printzipalean egongo dela euskaraz egiten den antzerkirik hobereena, baina ez edozer gauza. Eta zoritxarrez, Euskadin ez da gauza handirik egiten; gazteleraz aukera handiagoa dago.

Udazkenean izan direnak oso onak izan dira. Zenbakei begiratuta gutxiago dira, baina zenbat lan aurkezten dira gazteleraz eta zenbat euskaraz?...

Guk ekartzen dugu, beti, dagoen antzerkirik hobereena. Nik ez dut esaten asko ekartzen dugunik, baina dagoena kalitate onekoa dela, bai. Hiru bakarrik badaude kalitate onekoak, horiek ekarriko ditugu; lau badaude, hobe guretzat.

Ez dugu euskaraz egiten den edozer gauza ekarriko, ez. Orain Trikibertso ekitaldiak egongo dira, eta hobereenak ekarriko ditugu. Ez dugu edozein bertsolari ekarriko; txapeldunak eta, bai. Eta gauza bera, beste arloetan.

Gasteizek dexentezko bizitza kulturala duela esan ohi da. Zein da bizitza horretan Udalak duen papera eta zein gizarte agenteek dutena? Koordinazioa dago?

Noski, bestela ez litzateke posible izango. Guztiakin hitz egitea beharrezkoa da. Gasteizen dauden talde batzuek ere laguntzak izaten dituzte beraien programaziorako.

Gauzak ez ditugu guk bakarrik egiten, ez dugu diru nahikorik. Beste lekuetatik ere jasotzen ditugu laguntzak, eta horretarako eseri eta hitz egitea beharrezkoa da.

Ekitaldi batzuk oso garestiak dira eta guztien artean ekar-

tzen ditugu. Eta besteetan laguntzak ematen ditugu, beste talde batzuek beraien ekitaldiak egin ditzaten.

Zein da ditzosozko Arte Gariakideko Euskal Museoari buruz zuek duzun iritzia?

Gasteizen egiten den guztia Udalaren ardura ere bada eta gure aldetik ez dago oztoporik. Gasteizko edozein biztanlerentzat gauza pozgarria dela uste dugu.

Tokia? Hasieran beraiek aukeratu zuten lekua ez zen egokiena, beharbada. Frantzia kalean. Udalaren lurra dela eta, gure aldetik, ez dago arazorik.

Baina beharrezkoa dela uste duzu?

Horrelako gauzak behar-beharrezkoak dira? Ba ez. Orain arte horrelakorik gabe egon gara eta ez da ezer gertatu. Janaria, osasuna eta horrelako

behar dela. Alde horretatik, behar bat bada. Beraz, behar-beharrezkoa ez dakit, baina oso ondo datorkigu guztioi.

Krosa. Maratoi Erdia. San Silvestrea.... Udalak antolatzen ditu, edo antolaketan laguntzen du... eta jendearen erantzun ona lortzen dute, baina gero, benetan, diru gehiena ez al doa kirol profesionalarentzat eta, batez ere, Alaves eta Baskoniarentzat?

Horrelako gauzak (San Silvestrea, Maratoi Erdia,...) beste norbaitekin batera antolatu ohi ditugu, horrela diru gutxiago jarri beharra dago.

Kirol profesionaleko ordezkariak dirurik ez diegula ematen esaten dute. Dirulaguntza ematen diegunean, zerbitzu bat eskeintzen dutelako da; Saskibaloia Kanpusa,... Baina bestela Udalaren diru laguntzak Gasteizen kirola egiten

"Kirol profesionaleko ordezkariak dirurik ez diegula ematen esaten dute. Udalaren diru laguntzak Gasteizen kirola egiten duten milaka lagunentzat dira."

gauzak dira funtsezkoak. Baina Museoa oso ondo etorriko zaigu guztioi. Hori argi daukat.

Egia da gainera gordeta dauden hainbat eta hainbat lan erakutsi ahal izateko etxea

duten milaka eta milaka lagunentzat dira.

Hori da gure filosofia.

Leire Lopez de Aberasturi



PAPERDENDA
den-dena
bizziklatua

ZuhaiZti

OPARIAK • INPRENTA LANAK • KARTOIZKO ALTZAIRUGINTZA
Kutxillera, 6 behe • 01001 GASTEIZ • Tnoa. 28 60 15

EYSKAL OKELTA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia

Portal del Rey, 24
Tfnoa: 25 56 90
GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16 28 28 39
01002 Gasteiz

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA 13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**



Floridako altxorra !

35



adaka **M**
madinabeitia

altzariak • apaindurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

Pilotarekin zita Zaramaga auzoan genuen, eta bertako frontoirantz abiatu ginen, kaxetea eta argazki-makina lagun. Frontoitik hurbil ginela, 100 bat metrora, ederto entzuten ziren pilotakaden hotsak. Pilotak horma jotzean, hots berezia sortzen da. Esan genezake oso gurea den hotsa sortzen dela, Euskal Herrikoa, edozein herritakoa. Aurrikusitako zita ez zen Retegirekin, ezta Titinekin ere. Arabako pilotazaleek aspalditik ez duten puntako pilotariarekin amets egiten dihardute, eta hantxe, Zaramagako frontoian, amets hori gauzatzen saiatzen ari dira

hiru horma arteko artistak



ezkerretik hasita
goian: Raul Gamba eta Andoni Etxaberría
behean: David Nalda eta Joseba Angulo

RAUL GAMBRA

Gambra, Araban ez daukagu puntako pilotaririk...

Ez, Gipuzkoarekin edo Nafarroarekin alderatuz, Araban lagun gutxiago gara. Pilotan txiki-txikitatik hasi behar zara frontoian, eta hemen futbola edo saskibaloia nahiago dute gazteek. Dena den, guk puntako pilotariak izan nahi dugu, ea egia den...

Zein da atseginen duzun pilotaria?

Niri Inaxio Errandonea gustatzen zait. Agian, ez da pilotaririk ezagunena, baina oso teknikoa da, itxura eta estilo ederrak ditu...

Zure jokuan zeintzuk dira ezaugarriak nagusienak?

Pilotari ahalik eta gogorren ematen saiatzen naiz. Ondo moldatzen naiz bi eskuekin, eta ezkertia ez naizen arren, ezkerrez hobeto jotzen diot.

Zein da pilotak duen alderik txarrena?

Asko sofritu behar dugu. Sasoi onean baldin bazaude, Pilota ederra da. Pilotari ondo jotzen diozunean, zerbait berezia sentitzen duzu gorputzean. Hori bai, une txarrak ere badira, eta orduan eskuko minak... azaltzen dira.

Gambra txikia izan arren, mutil indartsua da, entrenatzailearen hitzetan etorkizun handia dauka. Hala bedi, berak Errandonearen modukoa izan nahi baitu.

GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33

IPARRA

taberna

Giro ezin hobea!

Florida, 80
Tfnoa. 26 77 81

GASTEIZ



Josebak ez dio gezurrik. Bere gurasoak Zaramagako frontoian zeuden, eta ez da harritzekoa, Pilota joku ikusgarria baita, are gehiago, 12 urteko semeak pilotari sekulakoa ematen diorean...

ANDONI ETXABARRIA

Zuen entrenatzailea Ogetilla da, zer moduzko entrenatzailea da?

Ona, baina gogorra. Jenio bizikoa da.

Baina, hori ez al da ona entrenatzailea izateko?

Pixkat bai; gogorregia da, ordea (dio irrifartsu). Pilota galtzen baduzu, errieta ederrak egiten dizkizu.

Noizko pilotari handi bat Araban?

Ea gutariko bat den. Ogetillak eta Zaramagako Esku Pilotak lan handia egin ohi dute egunetik egunera; guztion ametsa da hori. Ziur izan, gu, behintzat, saiatuko garela...

Gurekin izan, eta kantxara itzuli ziren lau pilotari gazteak. Orduan, Ogetilla entrenatzailearekin hitz egiteari ekin genion. Jenio txarreko kontua aipatzean, "beharrezkoa da, bestela ez dizute jaramonik egiten" argitu zigun. Frontoitik atera eta etxerako bidean, berriz entzun genituen pilotakaden hotsak...

ISMAEL D. DE MENDIBIL

DAVID NALDA-NALDA V

Arabian Nalda abizenak eta Pilotak bat egiten dute...

Bai, nire osabak, lehengusuak... pilotariak izan dira. Ni bosgarrena naiz familian. Horrez gain, nire ama Triciokoa da, Titinen herrikoa. Hori bai, ni euskalduna nauzue.

Zenbat ordu ematen dituzue frontoian astero?

Asteburuetakako partiduez gain, 7 ordu entrenatzen ditugu. Ariketa fisikoak lantzeko 3 ordu, eta 4 frontoian.

Ama Triciokoa izanez, ez dago aipatu beharrik zein den pilotaririk onena, zure ustez...

Aurrean ikusgarria da Titin. Ez dakizu inoiz zer egin behar duen, eta noski, herri osoa bere atzetik dabil.

Zein da zure ametsa Pilotan?

Guretzat Arabako txapelketak irabaztea polita da, baina ez da gure egungo helburua, hemen onenatarikoak baikara. Gure erronkarik handiena Euskadiko txapelketetan dugu. Oraindik gazteak gara, baina bi urtetan Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako arerioak izango ditugu aurrean; orduan ikusi ahal izango da zein den gure benetakoa maila.

Naldak etxean irakasle onak dituela antzematen da. Familian ederto ezagutzen dute Pilota mundua, eta etxeko txikiak badaki pausoz pauso egin behar duela lan.

JOSEBA ANGULO

Ogetako Retegi-Titin partidua ikusi al zenuen?

Bai, bertan egon ginen. Hura bai izan zela partidu ederra!

Gasteizko frontoia jendez gainezka, egun handietako giro bereziarekin, telebista... Ni Titinzale amorratua naiz, baina Retegik egin zuena txapela kentzekoa da.

Ez dakit entzun duzun Gasteizen beste pilotaleku bat zegoela orain urte batzuk...

Bai, noski, Frontoia Gasteiztarra izenekoak. Aitak eta pilotari askok diotenez, oso giro ona izaten zen beti. Bertan Ogeta bezalako pilotari arabarrek jokatzeko zuten, eta gurasoek askotan gogoratzen digute hura. Lehen pilotazale gehiago ziren Gasteizen, antza.

Eta gurasoak... Etortzen al dira gurasoak zuek ikustera?

Gurasoak beti daude gurekin. Harmailetan dituzun horiek gure aita-amak dira. Entrenamenduetan ere ez dute hutsik egiten.

EL BAR Kutxi

eguneko

EUSKARA GALDUZ GERO, AKABO EUSKAL HERRIA

IZENEGI EMAN **aek**

Peru 8	22 60 50
-	-
Jose Mardones 8	26 35 40
-	-
Arana 30	25 24 00

Imanol Ibarrodok 23 urte ditu, Pedagogiako ikaslea eta Euskarri futbol taldeko jokalaria. Nahiz eta Donostian bizi astean zehar, asteburuetan Gasteiza etortzen da gurasoen etxera eta Euskarrirekin jolastera.

IMANOL IBARRONDO:

"Euskararen gorakada Gasteizen harro sentitzeko modukoa da"

Nola ikusten dute gizpuzkoarrek gasteiztar bat euskaldun izatea?

Hasieran arraroa iruditzen zaie, baina lehenengo momentuan, soilik.

Euskaldun zaharra ala berria zara?

Euskaldun berria, nahiz eta aita euskalduna izan; nik beti etxean erdaraz hitz egin dut. Baina gero senideekin euskaraz.

Nola ikusten duzu euskararen egoera Gasteizen?

Gasteizen gero eta euskara gehiago entzuten da. Guraso eta semeen artean entzun ezezik, koadriletan ere entzuten da.

Eta kirol arloan?

Euskarriren proiektua euskara bultzatzea da, eta futbol taldean hasiera batean antzematen ez bazen ere, egunetik egunera saiatu gara euskara zabal-

tzen... Futbolearen argi dago erdaraz hitz egiten dela.

Gasteizen euskaraz bizi al daiteke?

Nik uste dut baietz, zergatik ez? Arazo nagusia da, hemen ez dagoela euskaraz hitz egiteko beharrik. Edozein dendatarara joan eta apenas inork ez daki euskara.

Zein da, zure ustez, euskararen etsai nagusia?

Gu geu, euskaldunak gare-nok. Gure artean orain euskaraz ari gara, baina beste momentu batean elkartzen bagara, erdaraz mintzatuko gara, ziur!. Askotan pentsatuzkoa da.

Gasteizko kaleetan nabaritzen al da euskararen gorakada azken urte hauetan?

Bai, gero eta gehiago. Lehen ez zen entzuten eta orain kaletik joaten zarenean entzun ohi duzu. Nabaritzen da eta harro sentitzeko modukoa da.

Euskaraz egiten al dituzu



BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuraturiko egurrez eginak
eta **OSAGARRIAK**

*artisans lanak
lorategi eta barrualdeko-proiektuak
egiten ditugu*



ALTZARIAK

Herreria 38, behea tfnoa.: 25 25 03

01013 Gasteiz

KLASEAK

matematika
fisika
kimika
biologia
geologia
euskara

*irakaskuntza ertaina
eta unibertsitatea*

☎ 26 03 54

Ikasketak?

Bai. Gure fakultatean, gainontzekoekin konparatuz, oso ondo gaude. Hala ere, ikasgai batzuetarako irakasle euskaldunik ez, eta erdaraz eman behar ditugu; baina orokorrean dena euskaraz jasotzen dut.

Unibertsitatean nola ikusten duzu euskararen egoera?

Ni nagoen fakultatean asko hitz egiten da. Donostian ere bai. Eta Gasteizko fakultateetan ere entzuten da piloia. Ostegunetan Gasteiztik ateratzen naizenean koadrila askok euskarara jotzen dute eta fakultateko jendea izaten da normalean...

Noiz hasi zinen futbolean jolasten?

Ikastolan, zazpi urterekin hasi nintzen, eta ordutik orain arte.

Zenbat taldetan egon zara?

Urgatzin, iaz Pasaian eta aurtun Euskarrin.

Beste taldeetan ere euskara erabili al duzu?

Urgatzin azken urteetan hasi ginen gure artean euskarara erabiltzen, entrenatzailerak erdalduna izan arren, eta Pasaian jokalariek guztiak euskaldunak direnez, ez dago inolako arazorik erabiltzeko.

Zure lehen urtean, nabaritu al duzu Euskarri eta beste taldeen arteko alde handirik?

Diferentziarik nagusia euskararen erabilpena da, baina horretarako sortu da Euskarri. Hasi batean euskaraz hitz egiteko ez zegoen motibazio handirik, baina orain honen garantziaz jabetu gara eta jendeak euskara erabiltzen du. Futbolari dagokionez, gure taldean egon badago oso ondo jokatzeko duen jendea, baina ni Pasaian egon naiz eta han jokalariek kobratzen dute eta maila hobea dutela esan daiteke...

Nola sartu zinen Euskarrin?

Koldo Beltranek komentatu zidan. Nik hasiera batean ez neukan gogorik; futbolean aritu ahal izateko mendira joan, eta halako gauzak egiteari utzi behar izan diot.

Hala ere, azkenean denboraldi honetan jarraituko dut eta hurrengoan seguraski utziko dut.

**Nolako harre-
ra ematen
dizute beste
taldeek zelaie-
tan euskaraz
hitz egitega-
tik?**

Ikusten zaituztenean euskaraz hitz egiten, aho zaballik gelditzen dira, baina gero harrera ona ematen digute. Nire ustez, beste taldeek atsegin-
go lukete euskaraz aritzea.

Zenbat talde euskaldun dago Euskarriren maila berean?

Bakarrik Vuldano eta Euskarri.

Epailearekiko harremana nola izaten da, euskaraz ala erdaraz?

Erdaraz, inolako zalantzarik gabe. Nik behintzat, ezagu-



tzen ditudan epaileak erdaldunak dira, baina esan didate badagoela euskalduna den bat...

Beste kirol batzuk praktikatzen al dituzu?

Bai, mendira joatea eta surfa, baina zaletasun gisa. Donostian bizi naizenez, surf egiteko aukera daukat...

Unai Uriarte

Xabier

musika ona
eta giro
ezinhobea
taberna
Kutxileria 23

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



Argazki - Estudio
Eramun

Heraclio Fournier, 23
Tnoa: 13 71 02
01006

Libertad, 5
Tnoa: 26 19 91
01004



Arte Ederre

buruzko Sailik
zabalena ezagu ezazu

behar duzun guztia aurkituko duzu

- pastelak
- oleoak
- akwarela
- pintzelak
- ikatzkiloak
- kaballeteak
- lientzoak
- olioak
- etabar

%10a
gutxiago

rriaga
euskalgintza, s.l.

500 METRO KARRATU
PAPERGINTZA, INFORMATIKA
ETA OFIMATIKARI ESKEINIAK

San Anton Plaza 7 - 8 / Telf.: 26 90 33 - Faxes: 26 22 12
Biltegia: Uritiasolo 2.2. Pabilioia 23 47 00 Fax: 23 49 14



gasteiz kolorez mozorrotuko da

MOZORROEI HAUTSA kentzeko ordua heldu da. Armairuen tiradoreetatik zein ganbaretako kutxetatik jantziak atera, garbitu eta josi, datozen ihauteri egunez behar den bezala gozatu ahal izateko. Mozorroa lortzeko garaia da!! Etxeko bazterretan luzaro lo egon den jantzia bilatu, esna ezazu,... Bestela lagunei eska dakieke...Edo, zergatik ez duzu denboraldi txiki batez zure burua jostun bilakatzen? Nahi izanez gero, jantzi bat lortzea ez da hain zaila, baina egun hauen inguruan lan egiten duen jendeari, ostera, ihauteriak antolatzea batzuetan gogorra egiten zaio...

ASKOTAN ideiak baino ez dituzte falta ihauteriak bizi dituztenek. Urtero elkarre askok egun hauek gogo handiz prestatzen dituzte. Abenduan edo hasi ziren biltzen udaletxean. Eta hortik aurrera elkarte bakoitzeko egoitzetan, ideiei bueltak emanez, gai bat aukeratzen da. Mozorroa zein karroza nola egin eta abestiak eta dantzak prestatzeak lan handia eskatzen du. Hala ere gustura egiten den lan bat da.

Aurten, hilaren 20an eta 21ean Gasteiz zeharkatuko duten desfileetan hogeita

lau taldek hartuko dute parte. Piratak, sorgin goibelak, telebistako pailazoak, birusen iraultza, Peter Panen mundu majikoa, partxis jolasa, Cuerdaren metro

arina, tximeletak, Euskal Herriko Ihauteria... konpartsek hautatutako gai bakan batzuk besterik ez dira. Ihauterietako asteburu koloretsu honetan hiru mila bat lagunek abestuz eta dantzatuz ondo pasatzeko nahia erakutsiko diote hirriari. Une horietan lanordu dexente atzean geratuko dira eta gozatzeko garaia egoikituko zaie gogor lan egin dutenei.



Hala ere, gasteiztarrok alai gaitezen, konpartsek ezezik beste kolektibo batzuek ere, tabernariak alegia, irudime-naz itxura aldatuko diote bere lantokiari. Ohiko poteoaren errondan, Gasteizko hainbat tabernatan, bost minututan kobazulo batetik Saharako basamortura joan ahal izango gara, edo espetxeke horma hotzetatik zirko bateko alaitasunera berehala irten. Zer aurkituko den hurrengo tabernan ez jakitea asteburu honetako martxaren mamia da.




HEGOALDE
euskaltegia.

ZURE EGOITZA BERRIA
Jose Lejarreta 9 behea
tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ

matrikula
zaitez!

J A T E T X E A



Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

Astearte zoragarri horiek

Gure hirian Ihauterietako Asteartean ateratzeko ohitura oso zabaldua ez den arren, euskararen alde lan egiten duten hainbat talde, IKA eta AEK euskaltegiak batez ere, asteartean kaleratu ohi dira ihauteriaz gozatzen. Edizio hau ixterakoan, ezin izan genuen konfirmatu zertaz mozorrotuko diren. Dena den, aurreko urteetan

bezala, Gasteizko Gaztetxean jai bat antolatuko dute. Urtero play-back lehiaketa prestatzen da, eta euskaltegiak taldeak eszenatokira igotzen dira abestera eta dantzatzera.

Orduan badakizu, ihauterietako astearte honetan zer egin ez jakitekotan, gaztetxera hurbil zaitezke. Giro euskalduna izango da. Gero geroakoak!

Raúl Sáez de Buruaga



Onak dira zure begietarako.

Onak dira zure poltsikorako.

Udaleko jai-egitaraua

Otsailak 20.

Arratsaldeko 20:30etan.

Principal Antzokian.

Pregoa.

Mozorro lehiaketa.

Konpartsen aurkezpena.

Otsailak 21.

Goizeko 12:00etan. Judimendi Gizarte Etxean.

Haurrentzako mozorro lehiaketa

Haurrentzako jai, "TRAPE-ROS DEL RIO" ren eskutik.

Arratsaldeko 19:00etan:

KONPARTSEN DESFILEA.

Ibilbidea:

Europa Gizarte Etxea - Gasteiz Hiribidea - Antso Jakituna - Lovaina plaza - Magdalena - Prado - Andra Mari Zuriaren Enparantza - Mateo Moraza - Olagibel - Bakea kalea.

Arratsaldeko 20:00etan.

Plaza Berrian.

Basakabi taldea.

Goizeko 23:00etan. Plaza Berrian.

Basakabi taldea.

Otsailak 22.

Goizeko 12:00etan:

KONPARTSEN DESFILEA.

Ibilbidea:

Iparralde Gizarte Etxea - Legutioko Atea - Frantzia kalea - Bakea kalea - Independentzia kalea - General Alava kalea - Loma Jeneralaren plaza - Andra Mari Zuriaren plaza - Plaza Berria.

Goizeko 12:00etan: Plaza Berrian.

DRINDOTS taldea.

Arratsaldeko 18:00etan. Principal Antzokian.

TAKOLO, PIRRITX eta PORROTX pailazoak.

Arratsaldeko 19:00etan.

Enparantza Berrian.

TITTI-TARRA taldearen "Queen of Desert" Ikuskizuna.

Otsailak 24.

Arratsaldeko 18:00etan.

Plaza Berrian.

Berbena eta "Sardinaren Ehorzketa".

Bonardi bilduma. 3.150 ptak.



Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean) **GASTEIZ**

MENDIAOPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Begirada baino urrunago

ZERBITZU OPTIKOETAN
1a

LARUNBAT ARRATSALDEZ ZABAIK: 5,00 - 8,30

Bezeroarentzako arreta telefonoa: 900 34 35 36
<http://www.multipopticas.es>



IRYSTA
poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 23 19 33

GASTEIZ



nolakoak gara?



KALETIK, zineman edo nonahi zaudelarik, jendeari begira gelditu eta zertaz ohartu? Oso ezberdinak garela guztiok. Ikerketa sakona egin dugu eta era askotako gasteiztar dagoela ohartu gara: zoroak, ikasle amorratuak, kirolzaleak, ... Eta... gure gasteiztar mostroingotxoak? Mostroingo mota asko al daude? Nola deskribapen duzue zeun burua? Beti izan zarete berdinarik dira edo aldatuz joan zarete? Zeun izaeratik zerbait aldatuko zenukete? Kezka hauek guztiak argitzeko Antonio Fournies eskola bisitatu egin dugu gure mostroingoak nolakoak diren aztertu dugu.

Zerbait aldatzekotan, hortzak aldatuko nituzke. Txuriak dira baina bata besteak baino luzeagoa da. Hain lotsati eta urduria ez izatea gustatuko li-tzaidake. Lagunekin ondo moldatzen naiz, eta munduko onenak direla uste dut. Ez nuke psikiatra baten-gana joan nahi.

SERGIO J., 10 URTE

NI YASHIRA naiz, baina nire izena ez zait gustatzen oso arraroa baita. Txikitant, oso lotsatia nintzen: bisitak zeudenean, mahaiepean ezkututzen nintzen. Orain, berriz, oso ausarta naiz. Lehen beldurtzen ninduten

animaliak ere asko gustatzen zaizkit orain.

YASHIRA, 10 URTE

Neska arrunta naiz baina laugarren mailan nengoenean oso lotsati eta aspergarria nintzen, nahiz eta nota onak atera. Orain ez naiz batere lotsatia, eta guztiakin hitz egiten dut. Udalekuetan kendu nuen lotsa, Lurrazkan eta Zuazan.

ENARA, 10 URTE

Izatera ona dut baina ezin ditut jasan gustatzen ez zaizkidan gauzak. Pozik nagoenean, zoratuta nagoela ematen du, ez zoroetxe batera eramana izateko adina, noski! Ipuinak sortzea dut gustukoa; hori da hobetoen egiten



GYREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefona: 24 59 33

JANTZI ETA
OPARIAK

Kutxilleria, 27
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ



Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA

KUTXI
kalean

dudana, irudimen haundia dut eta.

NAIARA, 10 URTE

Txikitan oso bel-durtia nintzen. Orain, berriz, ausarta naiz (beno, asko-asko ez). Izaera aldatu du eta apurtxo bat harroa naiz. Harrotasun hori kendu eta azkarragoa izan nahi nuke. Lagunekin primeran moldatzen naiz, klasekoak oso jatorrak baitira.

IERAI, 10 URTE

Sarritan lotsatia izaten naizjendearekin. Hau gutxi balitz, txikitan oso argala nintzen eta orain loditu egin naiz. Ahizparekin borroketan aritzen naiz, eta gorroto diet barazkiei.

LEIRE, 10 URTE

Ez zaizkit nire aginak gustatzen, bata leku batera eta bestea bestera begira daudelako. Begi eta ile politak ditut. Denen aurrean ikasitakoa esan behar dudanean urduritu egiten naiz: totelka eta guttiz aritzen naiz. Ikasgelako mutiko batzuk ez dira gure mundukoak..., hodeietan ematen dute eguna.

IRATXE, 10 URTE

Futbolean eta saskibaloian oso ondo aritzen naiz, baina urduritu egiten naiz nire lagunak gaizki jolasten dutenean. Errealako zalea naiz eta ez dut lotsarik. Nire ametsa da anaia bezalakoa izatea dut, hamabi urterekin Bilboko Athletic-ean jokatzeko baitu.

ANDER, 10 URTE

Sergio naiz, eta burua borobila daukat. Begi arruntak ditut, sudurra oso handia eta belarriak txikiegiak. Gainera, gutxiago hitz egin beharko nukeela esaten didate, eta horretan saiatuko naiz.

SERGIO, 10 URTE

Kotzeak gustatzen zaizkit, zoraturik naukate. Noiz edo noiz haserretu egiten naiz lagunekin baina berehala adiskidetzen gara berriro ere. Ez naiz berritsuegia, hala ere, seigarren mailako lagun batekin topo eginez gero lehegailu arriskutsu bihurtzen gara.

ARITZ, 10 URTE

Lorea Zurimendi

HAURRAK ZAHNTZEN DITUGU
KanGEUroak

GOIZEZ

Nekane	26 91 53
Eduardo	14 21 99
Leire	27 32 81
Lorena	27 10 13
Ainara	24 04 42
Ana	26 65 95
Eriete	29 96 50
Estitxu	27 65 07

ARRATSALDEZ

Oihana	25 30 35
Aintzane	27 09 64
Iratxe	24 51 81
Ainara	23 38 28
Lorena	27 10 13
Patrizia	27 78 19
Leire	23 12 23
Maidier	24 90 62
Estitxu	27 65 07


GAUEZ

Esther	27 84 57
--------	----------


Idoia	24 47 79
Lorena	27 10 13
Montse	26 78 12
Ainara	23 38 28
Txaro	28 08 85
Maidier	24 90 62
Arrate	25 64 01
Patricia	13 93 37

ASTE BURUAN

Olatz	25 61 20
Montse	26 78 12
Arrate	25 64 01
Patricia	13 93 37
Leire	23 12 23
Jose Angel	27 62 14
Saida	26 58 05
Idoia	24 47 79
Maidier	24 90 62
Belen	13 65 10
Monika	13 86 21
Itziar	13 86 21
Maria Jesus	13 54 35
Estitxu	25 99 60



kide



APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

THE BOOGALOOS: Groove eta Dantza Taldea

1996. URTEAREN hasieran Iñigo Ortiz de Zaratek (The Allnighters eta Groovie y Los Lisergicos taldeen kitarra eta organojolea) eta Ivan Pachecok "Boogaloos" taldea martxan jarri zuten, groove, jazz eta bossa-novaren abesti klasikoak jotzeko asmoz. 1997.ean taldea seriotasunaz jantzi zen, eta dantzarako zuzeneko talde gutxi zegoelakoan, hutsune hau betetzearen alde, jotzea erabaki zuten.

1997.urtean erabakiaren unea heldu zitzaion The Boogaloos taldekideei. Aurrera jo? Bai? Orduan taldea finkatu beharko dugu? Nola? Beharrezko osagaien bidez; hauek: bateria, kitarrak, baxua, saxoa, txirula, ahotsa eta koruak. Eta musikariak? Angel LÚpez, Koko Gonz-lez, Iosu Izagirre, Javi Antoñana, Enrique Diaz de Heredia, Ivan Pacheco eta Iñigo bera, hain zuzen. Besterik? Bai. Alvaro Alcalde, Diego San Martín eta Miguel Oribe DJ-ak, agerraldietako bitartekoak alaitzeko prest. Ea bukatu dugun? Ez. Zergatik? The Boogaloos proiektu irekia delako. Zer? Galderak

Iñigok erantzun ditzala!!!

Dakigunez. Boogaloos taldea orain bi urte sortu zen arren, hasieratik hona gauza asko aldatu dira.

Bai. Laukote eta boskotea izan ginen hasieran, gaur egun seikote gaituzuelarik. Nik uste orain taldea tinko osatuta dagoela. Boogaloosen enborra sei musikariz dago osatuta: bateria, baxua, gitarra, organoa, txirula... Dena den, taldea edozein momentutan zabal liteke.

Proiektua zabalik duzuela esan nahi duzu?

Bai. Taldeak ez du gelditu



HARREMANETARAKO TELEFONOA. 22.03.87 (Iñigo).

tu behar. Adibide bat emango dizut: ikasten edo The Allnighters taldearekin jotzen nagoela, ni ordezkatzeko bi musikari ditugu prest. Bestalde, gure estiloak mugarik ez duelakoan gaude. Nahiz eta gaur egun batera komertziala ez den, aukera ugari eskeintzen digu bertsioak gauzatu edo ideiak berriro ahal izateko.

Saiatuko al zara

Boogaloos taldearen musika moeta zehazten?

Groove musikan aritzen gara, dantzarako musikan hain zuzen. Erritmo sendoak eta melodia errezak ditugu gure estiloaren osagai nagusiak. Sustriaiak bluesari helduta, armoniak jazzetik hartuta eta melodia funkyak eta soulak eskeinita. Eta bukatzeko, honi guztiari bossaren, latin jazzaren

eta 50., 60., eta 70. hamarkadetako zenbait erritmo gehitzen diogu.

Eta abesti gehienak bertsioak dituzue.

Bai. Jotzen ditugun kantak Steve Wonder, Santana, George Benson, Herbie Mann edota Jimmy McGriffenak dira. Guk konposatutako bi baino ez dugu. Dantzarako musika da, gorputza mugitzeko erritmoa.

MUEBLES Y DECORACION MEDRANO

PINTORERIA 45
TEL/FAX: 25 79 32

C/ PAS URTIASOLO 3
TEL/FX: 13 68 61

GEURE ERAKUSKETA GEURE
TAILERRAREN ESKULANEK
OSATZEN DUTE

ARABA EUSKARAZ «98
orain dugu garaia

MATERIALA SAIGAI

ostiraletan 5:30-8:30
larunbatetan 11-13:30
5:30-8:30

POSTA PASABIDEA, 12

50., 60. eta 70. hamarkadak aipatu dituzu. Ez al da urte haietakoa musika gehiegi talde bakar batek garatu dezan?

Jakina! Guk ez dugu hiru hamarkada horietako musika osoa garatzen, ezta pentsatu ere! Baina garai hartako gauza askok eragin handia daukate gure estiloan. Adibidez; 50. hamarkadako erritmo latindarrak eta Big Banden apainketak oso kontuan hartzen ditugu. 60. hamarkadari dagokionez, indarra, zuzeneko gogoia, eta kemena guregan islatzea nahi dugu. 60.etik ere Hammond eta txirularen soinuak hartu ditugu, eta 70. hamarkadatik jotzeko teknika. Aipatu dizudan hau guztia edozein momentutan jo dezakezu, garai hartako eredueta murgilduta, baina atzeratuta gelditzeko arriskurik gabe.

Nork aukeratzaren ditu bertsionatu beharreko kantak?

Bertsionatu behar ditugun abestiak edozein taldekidek aukera ditzake. Hala ere, ez dira Boogaloosen tankeratik urrundu behar. Badakizu, funka, soula eta groovea nagusi izan behar ditugu.

Zuenak diren abestirik egiteko asmorik?

Bai, baina lehen esan dizudan bezala, guk sortutako bi abesti besterik ez dugu. Egun bertsionatzeko kanta bikain asko daudelakoan gaituzue oraindik. Eta pozik!

Nahiz eta duela gutxi jaito, badirudi Boogaloos esperientzia handiko taldea dela.

96. urtea saialdi hutsatzat jo dezakegu. Serioagoa zen zerbaiten bila genbiltzan, baina ez genuen topatu, 97.ean taldea berri zen arte. Orduan argiago azaldu zizaigun gauzatu nahi

genuena, eta taldea, berez, arin ibiltzen hasi zen. ¡Acid Jazz! tabernan zertutako hamar kontzertuei esker Boogaloosen airea eta taxua zehaztu ahal izan genuen.

Eta orain Elefante Blanco Aretotik oso eskaintza erakargarria iritsi zaizue.

Bai, hitza eman dugu urtarrilaren, otsailaren, martxoaren eta apirilaren asteburu guztietan Elefanten jotzeko, ostiralero, larunbatero eta festa bezperetan hiru agerraldi izango ditugularik, ordu erdiko zuzenekoak, hain zuzen. Honen bidez, taldeak esperientzia izugarri handitzea espero dugu. Hilero hogeita lau zuzeneko! Puf, ez da zenbaki txarra. Urtarrilean bakarrik beste talde askoren urte osoko lana beteko dugu. Piloa ikasiko dugulakoan gaude, badakizu; entzule eta taldearen arteko komunikazioa, taldearen joera, eskenatokian egoten jakitea... Gehiegi benetan!

Eta nola agertu zitzaizuen Elefante Blanco Aretotik jotzeko aukera hau?

Karibear erritmoetan murgilduta hilabete asko eman ondoren, Elefantekoak zerbait berriaren bila zebiltzan. Zuzeneko talde bat nahi zutela ohartu ahala, proiektu bat eskeini eta onespena eman zioten. Gure estiloan aritzen diren talde gehiago ekarri nahi dute Gasteizera, Accid eta Latin Jazzentzako erreferentzi toki bat sortu nahian dabilta. Bestalde, gu kanporatzeko asmoa dute... Dena den, egitasmo hau ez da batere berria; Britainia Haundian orain hamar urte martxan jarri zen, duela lau, Italian eta Alemanian, eta gaur Gasteizi heldu zaio txanda. Gainera, imajinaren gaixotasunai borrokatzeko atxakia ona da...

Diskon orde zuzeneko talde bat izatea ez al da arriskugarriegia izango?

Bai. JosÈ Angel (Elefante Blancoa) lehenengoa izan zen gure hirira kontzertuak ekartzen, eta orain lehena izango dugu berriz ere "mobida" hau bultzatuz. Berak beti berrikuntzaren alde egin du apostu...

Orduan, zuzenekoztat jo al daiteke Elefante Blanco egingo duzun lana?

Gurea dantzarako zuzeneko musika da. Gainera, agerraldien artean DJ batzuk arituko dira diskak aukeratzeko; aipaturiko estiloetako diskak, jakina. Bestalde, ideiak ditugu gaua borobiltzen saiatzeko; bideo emanaldiek izan lezake leku bat, baita dantzaldiek ere, taldea eta DJen arteko elkarketak, edota edozein proposamen artistikoak ere. Eta, azkenik, kanpoko musikariak etortzea lortuko bagenu, akabo!

Eta dantzarako talde batek eskenatokitik dantza eragin

beharko du...

Egia. Dena den orain arte gure ahalegin guztiak musikara zuzendu ditugu, agerraldiak bazterturik utzi ditugularik. Baina abeslari berria dugunez (Amaia, Ale Hop Taldekoa), hutsune hau beteko dugulakoan gaude, izugarri martxosa da eta.

Orain arte nolako entzulegoa izan duzue?

Lagunak eta Aldapako jendea gehien bat. Dena dela, uste dugu gure "roiloa" denon gustokoa izan daitekeela.

Besterik?

Bai. Jendeari esan nahi diogu Makina edo Aldapaz gain, ondo pasatzeko era desberdin asko daudela. Ahantz ditzatela aurritziak eta datozela gurekin!!!, areto bateko giroa doazenez sortzen dute eta...

CEGASA INTERNATIONAL ALCALINA

CEGASA PILAK INDARTSUENAK ETA EKOLOGISTENAK

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

ZARATA MUSIKA... ZER?



GASTEIZKO UDALA



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

SAILA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA	Espainia plaza, z/g	16 13 37	
	ZERBITZU OROKORRAK	Espainia plaza, z/g	16 13 08	
	GIZARTEGINTZA (ARGIBIDEAK)	Espainia plaza, z/g	16 13 44	
	GAZTEEN ARGIBIDE BULEGOA	Espainia plaza, z/g	16 13 30	
	FUNTZIO PUBLIKOA	Espainia plaza, z/g	16 11 41	
	IDAZKARITZA	Espainia plaza, z/g	16 13 20	
	ARGIBIDEAK ETA ERREGISTROA	Espainia plaza, z/g	16 11 88	
	ERROLDA	Espainia plaza, z/g	16 11 06	
	BULEGO TEKNIKOAK	BORONDATEZKO DIRU-BILKETA	Dato, 11	16 16 68
		ZERGEN GESTIOA	Dato, 11	16 11 33
INGURUGIROA		Dato, 11	16 11 20	
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMAZIO-RAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40	
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 99	
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88	
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70	
HEZKUNTZA SAILA (IME)	ARGIBIDEAK	Fray Zacarias	16 12 16	
EKONOMI SUSTAPENA		Fray Zacarias	16 12 11 16 13 48	
GIZARTE ETXEAK	JUDIMENDI	Urriak 12 kalea, z/g	16 17 40	
	LANDATXO	Santa Maria kalea, 4	16 16 82	
	IPARRALDE	Zuberoa plaza, z/g	16 17 60	
	ARIZNABARRA	ARIZNABARRA, 19	13 36 91	
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK (KULTURA)		16 12 31	
	BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 61	
KONTZIENTZI ERAGOZ-PENERAKO BULEGOA			16 36 91	



Z E
E L
R B
B I
I D
T Y
Z N
V A
K

CASA DE CULTURA

Diputación
Foral de Alava

Arabako
Foru Aldundia

KULTURA ETXEA

KULTURA

CASA DE
ETXEA

HITZA KULTUR ETXEAN

OTSAILA

5 Osteguna

8etan

Hitzaldia
"Euskalkien mapa berria"
Koldo Zuazo

13 Ostirala

4etan

Diaporama
"Pamir-eko bihotzean"
Felipe Uriarte

19 Osteguna

8etan

Musika emanaldia
"Hemen" diskaren aurkespena
Xabier Montoia

MARTXOA

5 Osteguna

8etan

Hitzaldi Literarioa
"Biziaren hizkuntzaz":
Txepetxekin elkarriketak
Jon Sarasua

11 Asteazkena

8etan

"Lumaren musika"
Daniel Landart

26 Osteguna

8etan

Ipuinaldia
"Chuaotikan"
Koldo Amestoy

La Florida ibilbidea z/g
Tel. 945-181944

Diputación
Foral de Alava

Departamento de
Cultura y Euskera



Arabako
Foru Aldundia

Kultura eta
Euskara Saila
Fundazioa Sancho el Sabio Fundazioa